

**1.- AURKEZPENA**

Villabonako Aizkardi Mendizale Elkartek, argazki eta mendizaletasuna bateratu nahian, mendiko ibilbide erraz batean zehar egingo den argazki rally-a antolatu du 2024ko azaroaren 10erako. Partehartzaileek aurrez markatutako ibilbidea burutu beharko dute, zeinetan egun berean jakitera emango den, eta natura zein mendiarekin erlazionaturik egongo den gai zehatz bati buruz argazkiak atera beharko dituzten. Mendian buruturiko ekintza izaki, arropa zein oinetako egokiak erabiltzea gomendatzen da.

**2.- EUSKARRI FOTOGRAFIKOAK**

Memoria txartel estandarrak erabiltzen ez dituzten kameradun partehartzaileek dagokien komunikazio-kablea ekarri beharko dute argazkiak deskargatu ahal izateko. Memoria txartelek hutsik egon beharko dute irteera uanean.

**3.- IZENEMATEA**

Izenematea guztiz dohakoa da, eta rallyaren egun berean egingo da elkarte aretoan. Euz dago partehartzaileentzat mugarik, honela, adin mugarik gabe, argazki kamera bat duen edonork parte har dezakeelarik. Inskripzio-mahaiak bederatzia eta bederatzit 'erdiak artean izango dira zabalik. Inskripzioa egin ostean partehartzaile bakoitzari oinarri hauek guztiak biltzen dituen kopia bat emango zaio, zeinetan lehiaketaren nondik-norakoak, argazkientzat autaturiko gaia eta ibilbidearen mapa agertuko den.

**4.- GAIA****5.- IRTEERA**

Argazki rallya goizeko bederatzietan hasiko da, inskripzioa egin ostean. Partehartzaile bakoitzak ibilbideari antolakuntzak zehazturiko argazki bat egin ostean ekingo dio.

**6.- IBILBIDEA ETA ARGAZKIAK ATERATZEA**

9 kilometro inguruko ibilbidea markatuko da, lau orduko gehienezko denboran amaitu beharko dena. Ibilbidean zehar, formatu analogikoa zein digitala erabiltzen dutenek, antolakuntzak aurrez emaniko gaiaren inguruan 36 argazki atera beharko dituzte. Antolakuntzak 649717182 telefono zenbakia zabalduko du partehartzaileek ibilbidean zehar edozein arazoren aurrean dei dezaten.

**7.- EUSKARRIEN BILKETA**

Partehartzaileek, beranduenik ere eguerdiko ordubatean amaitu beharko dute ibilbidea. Partehartzaileek memoria txartelak entregatuko dituzte antolatzaileei, hauek ordenagailuetara deskargatuak izan daitezzen, hau egin ostean partehartzaileei itzuliko zaizkielarik.

**8.- LANEN AURKEZPENA**

Partehartzaile bakoitzak ibilbidearen ostean antolakuntzari emaniko irudietatik hiru aukeratu beharko ditu, eta 20x30cm ko paperean aurkeztu beharko ditu 30x40cmko kartulina beltz baten gainean, aurrean titulua idatziz. Aurkezpen grafikoarekin batera, datu hauek dituen kartazal bat eraman beharko da: Kartazalaren kanpoaldean aurkezturiko hiru argazkien titulua, eta barnean autorearen datuak: Izena, abizena,

helbidea, telefonoa eta e-maila. Antolakuntzak onarturiko argazki originalei eginiko ikutu minimo batzuk onartuko dira, hala nola enkuadreak, distira maila, kontrastea, saturazioa, etab., baina inolaz ez ikutu grafikoak. Lanak gehienez ere azaroak 16, larunbatean 13etan aurkeztu beharko dira honako helbide honetan:

**BASAJAUN LIBURUDENDA**

Kale Nagusia, 29  
20150-VILLABONA-GIPUZKOA  
Tlfnoa. 943 691 651

**FOTO KARLIS**

Kale Berria, 58  
20150-VILLABONA-GIPUZKOA  
Tlfnoa. 943 654 141

Hautatutako argazkiak [argazki.rallya@aizkardi.com](mailto:argazki.rallya@aizkardi.com) antolakuntzak jarriko duen e-mailera JPG formatuan bidali beharko dira

**9.- LANEN ERAKUSKETA**

Aurkezturiko lanak 2023ko azaroaren 18 eta 22 artean ospatuko den 40.mendi astearen barruan erakutsiko dira GUREA ANTZOKIAN. Antolakuntzak ez ditu bere gain hartzen erakusketan zehar gerta daitezkeen ezbeharrak, galerak edo lapurretak. Lehiaketara aurkezturiko irudiak antolakuntzaren web orrian [www.aizkardi.com](http://www.aizkardi.com) argitaratuko dira.

**10.- BOZKETAK**

Epaimahai tekniko batek autore ezberdinen HIRU lan onenak hautatuko ditu, eta honen erabakia apelaezina izango da. Gainera, erakusketara doan publikoak argazki onena bozka dezake, boto hau epaimahai teknikoarekin bat etor daitekeelarik. Kasu honetan saria gehitu egingo da.

**11.- SARIBANAKETA**

Saribanaketa **azaroak 21 OSTEAGUNEan** egingo da arratsaldeko bederatzietan GUREA ANTZOKIAN, 40. AIZKARDIren mendi asteko azken proiektioaren ostean. Sariak hauek izango dira:

Argazki onenari saria.....	150 Euro
Argazki onenari bigarren saria.....	100 Euro
Argazki onenari hirugarren saria .....	75 Euro

**Publikoak hautaturiko argazki onenari saria .....**

Adunako ABURUZA Sagardotegian bi lagunentzat afaria

**12.- ESKUBIDEAK**

Saritu gabeko lanak saribanaketa egunean jaso ahal izango dira. Saritutako lanak antolakuntzaren esku geratuko dira. Antolakuntzak dituen irudiak eta beraien eskubideak heuren autoreenak dira. Antolakuntzak kopiak egin ahal izango ditu erakusketa publiko zein promozioetarako betiere autorearen izena bertan azaltzen delarik.